



Arautegia

Krosa 2026

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, **Euskadiko XLIII. Eskolarteko Kirol Jokoak** antolatuko ditu 2026ko martxoaren 1ean "Atxabalpe"-eko instalakuntzetan, Arrasaten (Gipuzkoa).

I. Artikulua

Txapelketa honetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioan dauden infantil mailako kirolariek hartu dezakete parte (2012 eta 2013ean jaiotakoak), hala nola, eskola kiroleko taldeak eta eskola kiroleko kanpainen inskribatuta dauden elkarteak (3 talde lurralde historiko bakoitzeko, gizonezkoen kategorian nahiz emakumezkoetan).

Partaide guztien eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

II. Artikulua

Lurralde-selekzioko talde bakoitzak, gehienez 6 kirolari aurkeztu ahal izango ditu. Bai gizonezkoetan, baita emakumezkoetan ere.

III. Artikulua

Ikastetxe edo elkarte bakoitzeko taldeek, gutxienez 4 eta 6 kirolari aurkeztu beharko ditu, bai gizonezkoen kategorian bai emakumezkoetan ere.

IV. Artikulua

Ikastetxe bakoitzeko taldeek hurrengo araudia bete beharko dute:

- Taldea 6 kirolariz osatuta badago, gutxienez lauk ordezkatzeko duten ikastetxeakoak izan beharko dute.
- Taldea 5 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzeko duten ikastetxeakoak izango dira.
- Taldea 4 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzeko duten ikastetxeakoak izan beharko dute.

V. Artikulua

Klubak derrigorrez, bertakoak diren kirolariz osatuta egon behar dira eta beraien lurralde historikoko eskola kiroleko programetan izena emanda egon behar dira.



VI. Artikulua

Taldeen sailkapena, edozein kategoriatan, lasterketa bakoitzetik eta talde bakoitzetik lehenengo lau kirolariak oinarritzat hartuta egingo da, talde bakoitzeko puntuazioa 4 kirolarien sailkapenen batura eginez. Bi talde edo gehiagoren artean berdinketa izan ezkerro, laugarren kirolariaren sailkapena kontuan hartuko da.

Kategoria	Distantzia	Ordua	Epaileen deia	
Infantil mutilak	2.800 m	11.00	Sarrera 10:45	Irteera 10:55
Infantil neskak	2.800 m	11.20	Sarrera 11:05	Irteera 11:15

VII. Artikulua

Hurrengo lasterketak ospatuko dira, aurreikusitako gutxi gorabeherako luzera eta ordutegiaz.

VIII. Artikulua

Euskadiko Infantil Mailako Eskolarteko Kros Txapelketarako izen-emateak lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira 2026ko otsailaren 24an, arratsaldeko 20:00ak baino lehen. Hauek Euskadiko Atletismo federaziora helarazi, otsailaren 26an arratsaldeko 14,00ak baino lehen. Frogaren egunean Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren arduradunak baimendu ezean ezingo da aldaketarik egin.

OHARRA

Dortsalak froga egunean bertan, 2026ko martxoaren 1ean, emango zaizkio zirkuirako idazkaritza nagusian talde edo selekzio arduradunari.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.



EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) IAFFak duen nazioarteko txapelketen araudia.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.